



UMANDI GURASO ELKARTEA

www.umandi.net/ampaumandi

GURASO ELKARTE BILERA

Umandi ikastolan 2013ko Maiatzak 2an , eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina) Itsaso Imaz (idazkaria), Nagore Montoya, Nerea Salazar, Rita Minguez, Encarna Bonilla, Eneko Etxegarai, Beatriz Sáez, Manuel Sanchez.

Hasiera ordua: 17:00.

Bukaera ordua: 18:45.

EGUNEKO AZTERGAIK

- **AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA:**

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen, akats batzuen zuzenketa egiten da; Euskaraz eta gazteleraz partaideak ez datoz bat, ikastolako jairako eszenatokia ez dago ordainduta eta lan egingo den enpresa ez da aktan agertzen dena; aldaketa guzti hauek jaso ondoren aurreko bilerako akta onartutzat ematen da.

- **JOSTAILU ETA LIBURUEN TRUKEA:**

Guraso batek proposatuta maiatzak 10 ostiralean, ikastolako patioan liburu eta jostailu trukea antolatu da. Parte hartu nahi dutenek egun horretarako jostailuak ekarri beharko dituzte. Deialdia astelehenean maiatzak 6an banatuko da.

- **LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN BALORAZIOA:**

Nazioarteko liburuaren eguna ospatzeko guraso batzuk geletara sartu ziren liburuak aurkezteko; orokorrean balorazioa oso positiboa izan da, bai parte hartu zuten guraso, ikasle eta irakasleen partetik.

- **KARTEL LEHIAKETA:**

Lehiaketan parte hartu duten marrazkiak ikusten dira eta bileran dauden partaideek 2 aukeratzeko dituzte ikastolako jairako kartelak eta triptikoak egiteko.

- **BATZORDE EGOERA EGUNERATUA:**

IKASTOLAKO JAIA:

- 🕒 Bazkaria: Ikastolako jaiko bazkarirako erabaki da pegatina batzuk prestatzea eskolako zigiluarekin eta ordainagiriaren truke pegatinak eman bazkarira sartu ahal izateko.
- 🕒 Krossa: Ekhiñek irabazleentzat kopak lortu ditu, hauek zituzten inskripzioak kendu dira eta pegatina batzuk jarri behar zaizkie. Ekhiñeri ordaintzeko sartutako lan orduen arabera ordainduko zaio.

JOLAS TXOKOA:

Udaletxera deitu da jolas txokoen dirulaguntzari buruz galdetzeko, eta udaletxearen erantzuna izan da ekainean aterako dela deialdia; bertaratuen artean erabakitzen da zirkularra banatzea argi utziaz diruaren itzulera izango dela baldin eta udaletxeak dirulaguntza eman.

KANPO EKINTZAK:

Julen bajan dago eta bitartean bere ordeztan Mikel egongo da.

- **BESTELAKOAK:**

- 🕒 Zuzendaritzatik Ikasle berrien guraso bilerarako, Guraso Elkarteko ordezkari bat eskatu zuten, hauei arrera egiteko eta Guraso Elkartearen oinarriak azaltzeko, bertara Ana Arroyo lehendakari ordeza joan zen. Bertako bileran aita batek proposatu zuen ARGITXO pertsonaiaren bitartez eguerdian etortzeko prest legoakeela, euskara, natura eta antzerako gaiak lantzeko. Zuzendaritzara eramango da proposamena.
- 🕒 Blog-a sortua dago martxan jartzeko prest. Loturak egin beharko ziren web orriarekin. Bertan gauzak zintzilikatzeko gonbita Guraso elkarteko buruak izango du.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat emango da 18:45etan eta hurrengo bilera Ekainak 6 arratsaldeko 19:00tan izango da.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-